

DEFINIZIOAK

AIREAREN KALITATEAREN ESTATISTIKA (090203)

Airearen Kalitatearen Indizea (AKI)

Airearen kalitate indizeak (AKI) biztanleei airearen kalitatearen berri modu argi eta errazean emateko balio du.

Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea EAeko kutsadura-mailak kontrolatzeko eta zaintzeko tresna bat da, eta autonomia-erkidegoek beren lurraldeko airearen kalitatea ebaluatzeko betebeharrari erantzuten dio. Sareak airearen kalitateari buruzko araudiak ezartzen dituen kutsatzaileak aztertzeko eta neurtzeko sentsoareak ditu; batik bat, sufre dioxidoa (SO₂), nitrogeno oxidoak (NO eta NO₂), ozono troposferikoa, karbono monoxidoa (CO), ozonoa (O₃) eta partikula esekiak (PM₁₀ eta PM_{2.5}). Neurketak denbora errealean egiten dira.

EAeko indizea airearen kalitatearen egoera definitzen duten bost kategoriatan dago banatuta: Oso ona, ona, hobetzeko modukoa, txarra eta oso txarra.

Honakoak dira indizea kalkulatzeko aintzat hartzen diren irizpideak:

- Kutsatzaile eta estazio bakoitzeko AKI bat ezartzen da; azken hori definitzeko kutsatzaile guztien arteko AKIrik okerrrena erabiltzen da.
- Kutsatzaile eta estazio bakoitzari dagozkien orduko eta eguneko AKIak kalkulatu dira.
- Kontzentrazio-tarteak zehazteko [102/2011 ED](#)-an finkatutako balioak hartu dira kontuan.

Airearen Eguneko Kalitatearen Indizea (AKI)

Eguneko AKIa kalkulatzeko ondorengo kutsatzaileen eguneko batezbestekoen maximoak erabiltzen dira: NO₂, SO₂, O₃, PM₁₀ eta PM_{2,5}.

2019ko martxoaren 18ko TEC/351/2019 Aginduarien arabera, **IKAren kategoria eta eremuak** ondorengoak dira:

Airearen Kalitatea	SO ₂	NO ₂	O ₃	PM ₁₀	PM _{2,5}
Oso ona	0-100 µg/m ³	0-40 µg/m ³	0-80 µg/m ³	0-20 µg/m ³	0-10 µg/m ³
Ona	101-200 µg/m ³	41-100 µg/m ³	81-120 µg/m ³	21-35 µg/m ³	11-20 µg/m ³
Hobetzeko modukoa	201-350 µg/m ³	101-200 µg/m ³	121-180 µg/m ³	36-50 µg/m ³	21-25 µg/m ³
Txarra	351-500 µg/m ³	201-400 µg/m ³	181-240 µg/m ³	51-100 µg/m ³	26-50 µg/m ³
Oso Txarra	501-1250 µg/m ³	401-1000 µg/m ³	241-600 µg/m ³	101-1200 µg/m ³	51-800 µg/m ³

Iraunkortasun adierazlea

Adierazle honek airearen kalitate-kalifikazioa Ona edo Oso Ona den batezbesteko egun kopurua kalkulatzen du.

Hurrengoak dira adierazlearen kalkulurako erabilitako irizpideak:

- **Urteko** Iraunkortasun adierazlea = (kalifikazio "Oso ona" + kalifikazio "Ona" izan duten egunen kopurua) / Urteko egun guztiak
- **Hileko** Iraunkortasun adierazlea = (kalifikazio "Oso ona" + kalifikazio "Ona" izan duten egunen kopurua) / Hileko egun guztiak

Material partikulatuak (PM10) eragindako aire-kutsadurarekiko esposiziopeko biztanleriaren adierazlea

Adierazle honek hiriko biztanleek jaso dezaketen PM10 urteko batezbesteko kontzentrazioa haztatua adierazten du. Material partikulatu fina (PM10), hau da, 10 mikrometro (mikra) baino diametro txikiagoa duten partikulak, biriketaraino iritsi daiteke eta birikak hanpatzea eragin, edota bihotzeko eta biriketako gaixotasunak okerragotzea. Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioen arabera, urteko batezbesteko kontzentrazioa da material partikulatu finak gizakiaren osasunean daukan eraginaren neurketa eta gainbegiratzeari buruzko adierazlerik onena.

1996. urtean, 96/62/EK zuzentarau gidaria onartu zuen Ingurumen Kontseiluak haizearen kalitatea ebaluatu, gainbegiratu eta kontrolatzeko. Horren ondoren, 1999/30/EK zuzentarauak, material partikulatuak eta bestelako agente kutsagarriak airera igortzeko muga dela eta, PM10 materiaren urteko 40 mikrogramoko muga-balioa ezarri zuen, metro kubikoko. Datuen urteko txostenak Europako Batzordeak 2004ko otsailaren 20an hartutako 2004/224/EE Erabakiaren xedapenak bete beharko ditu, lehen aipatutako 96/62/EE Zuzentarauarekin bat, airea kutsatzen duten eragile kutsatzaileetarako muga-balioei dagokienez. Orintsuago, Kontseilu Europarrak airearen kalitateari buruz emandako 2008/50/EE Esparru Zuzentarauak hainbat helburu zehaztu eta ezartzen ditu ingurumeneko airearen kalitaterako, eta estatu kideen artean metodoak eta irizpideak bateratzen ditu.

Unitateak: PM10 urteko batezbesteko kontzentrazioa $\mu\text{gr}/\text{m}^3$ -tan. Mikrogramo metro kubiko eto egun bakoitzeko.